Bizkaia

## GALDAMES TRENBIDEA
## FERROCARRIL DE GALDAMES

Galdamesko meatze-trenbidea XIX. mendearen azken herenean eraiki zuten, eta lotura zuzena izan zuen Bilbao River Cantabria Rail Co. Ltd. izeneko konpainia ingelesaren sorrerarekin. Enpresa hura XIX. mendearen erdialdean sortu zen, proiektu anbiziotsu batekin: Galdames esparruko mineralak hasieratik bukaerara arte ustiatzea. Horretarako, instalazio siderurgikoak, meatze-ustiapenak eta meategiak Ibaizabal-Nerbioi itsasadarreko kargategiekin lotzeko 22 kilometroko trenbidea lortu zituen konpainiak, minerala Bizkaiko Labe Garaietara bideratzeko. Era horretan, Bilbao River Cantabria Rail Co. Ltd. konpainiaren premiei erantzunez, Galdamesko meatze-trenbidea eraiki zuten 1871 eta 1875 bitartean, eta 1876ko maiatzaren 8an inauguratu zuten. Trenbidea ia ehun urtez egon zen martxan, eta eskualdeko hainbat meategirentzat lan egin zuen; horien artean aipagarriak dira Abanto-Zierbenako Inocencia, Cerrillo, Moruecos, Sauco eta Princesa meategiak; Galdamesko San Antonio, Berango, Escarpada, Cenfa, Tardía, Dudosa, Rita, Matilde, Punta eta Impensada izenekoak; eta Sopuertako Safo, Revenga, Catalina eta Gallimar meatzeak, garrantzitsuenak bakarrik aipatzearren. Trenbidea 1969an desegin bazuten ere, tarteka-marteka ibilbidea berreskuratu dute; gaur egun Sestao eta Galdames artean behar bezala egokitutako bide berdea dago bertan. Ibilbidean zehar, putzuak, trenbidea mugatzen duten langetak eta minerala kargatzeko tokia gordeta daude.

El ferrocarril minero de Galdames tiene su origen en el último tercio del siglo XIX y estuvo vinculado a la creación de la compañía inglesa Bilbao River Cantabria Rail Co. Ltd. Esta empresa nace en los años centrales de la centuria decimonónica con un ambicioso proyecto, basado en la explotación integral de los minerales del coto de Galdames. Con este fin la compañía se fue dotando de instalaciones siderúrgicas, explotaciones mineras y una línea de ferrocarril de 22 kilómetros de longitud que enlazara las minas con los cargaderos en la ría del Ibaizabal-Nervión, para hacer llegar el mineral a Altos Hornos de Vizcaya. De este modo, y atendiendo a las necesidades de la Bilbao River Cantabria Rail Co. Ltd., el ferrocarril minero de Galdames se construyó entre 1871 y 1875, inaugurándose la línea el 8 de mayo de 1876. El ferrocarril dio servicio, a lo largo de sus cien años de funcionamiento, a diferentes minas de la zona, destacando entre ellas la Inocencia, Cerrillo, Moruecos, Minas de Sauco y La Princesa, en Abanto y Zierbena, San Antonio, Berango, Escarpada, Cenfa, Tardía, Dudosa, Rita, Matilde, La Punta e Impensada en Galdames y Safo, Revenga, Catalina y Gallimar en Sopuerta, por citar sólo algunas de las más importantes. Este ferrocarril fue desmantelado en 1969, pero su trazado ha sido recuperado en varias fases y en la actualidad discurre por él una vía verde, bien acondicionada, entre Sestao y Galdames. A lo largo del trayecto se han conservado balsas, las traviesas que delimitan el camino y un cargadero de mineral.